# BERRIGARA

. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, maiatzak 23




## Gorputza sasoian

# Aerobitona


OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.


VENTANAS
SAN MIGUEL
Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate
Zure ongizatea babesteko gaude
SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).
NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.
EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.
AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.
30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.
VENTANAS SAN MIGUEL


BOLU
GIMNASIOA
STEP 2500
BIZIKLETA
BIZIKLETA
ESKI
ARRAUNA
RUNNER 2000
... gainera, ekain eta uztailean zehar, sevillana ikastaroa!
GIMNASIOA
B·O·L·U
Aranerreka, 9 behea Tf. 76 51 20

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
**Zuzendaria:**
Eneko Azkarate
**Erredakzioa:**
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
**Maketazioa:**
Iñaki Iturbe
**Publizitatea:**
Kristina Romero
**Harpidetzak:**
Gorka Elortza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Azaleko argazkia:**
Hilario Azkargorta
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea
**Tirada:**
4.500 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:**
BERRIGARA
**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599

**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du**

Z E B E R R I D A ?

# MIREN URKIJO

## *Taun-Taun taldekoa*



**- Nola sortu zitzaizuen Brasilera joateko aukera?**

- Nazioarteko hainbat jaialditan egindako lanaren emaitza da. Azken urteotan Cahors, Charleville (Frantzia), Nurenberg (Alemania) edo Vlissingen-eko (Holanda) festibaletan izan gara eta gure lana ezagutu ondoren, Brasilera joateko deitu ziguten. Domekan irtengo gara haruntz eta ekainaren 9an bueltatuko gara. Brasileko nazioarteko jaialdi honetan antzerkia, zinea, musika eta dantza emanaldiak izango dira. Guk *Makinatu* eta *Ubu babel* lanak eramango ditugu eta Sao Paulo, Sao Carlos, Rio Preto eta, ziurrenik, Rio de Janeiron ere eskeiniko ditugu emanaldiak.

**- Estatuko beste talderik badoa?**

- Bai, La fura dels Baus katalandarrak eta Xarxa teatre balentziarrak. Egia esan, ilusio haundia egiten digu hara joateak, jaialdi oso inportantea da eta aurrera jarraitzeko indarra ematen digu. Gainera, datorren urteko Bergarako Nazioarteko Jaialdirako gauzak ikusi ahal izango ditugu.

***"Domekan joango gara Brasilera bertako nazioarteko jaialdian parte hartzeko"***

I T U R R I O N E T I K

## Kanpoko igerilekuak ekaineko bigarren astean zabalduko dira

Agorrosingo Udal Igerilekuak ekainean zabalduko dira. Dagoeneko kanpoko piszinak eguzkia hartzeko zabalik baldin badaude ere (goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte), udako lehen bainuak ezin izango dira hartu ekainaren 9ra arte gutxi gorabehera. Udal langileak hasi dira jadanik kanpoko piszinak txukuntzeko lanetan; bi piszinak garbitu eta berdegunea apaintzeko lanak egingo dira datozen egunetan. Kanpoko igerilekuak zabaltzen direnean barrukoak uda kanpainarako bakarrik erabili ahal izango dira. Bestalde, udan kanpoko igerilekuak goizeko 10etatik gaueko 9ak arte izango dira zabalik.

E S A N D U T E

"Nire ustez *Guernica* koadroa Gernikan egon beharko litzateke ikusgai, baina ez testuinguru isolatu batean, gure historia hurbilena eta koadroaren zentzu sinbolikoa azalduz baizik. Ez da ezustekoa izan Reina Sofiako patronatuaren erabakia, koadroaren leku aldaketaren aurkakoa zen txosten teknikoa bazegoela jakina baitzen. Dena den, txosten teknikoa aitzakia bat besterik ez dela uste dut, benetako arrazoia sakonagoa dela, alegia. Gainera, *Guernica* hemen egotearen erreibindikazio politikoa Guggenheim inauguraziotik independentea izan beharko litzatekeela deritzot. Aukera ona litzateke koadroa ekartzeko, baina erreibindikazioak hor jarraitu behar du bestela ere. Museoaren inaugurazioaren garrantzia ez litzateke *Guernica* ekartzearen menpe egon behar"

**JESUS MARI LAZKANO**
Margolaria
EGUNKARIA



**MARS ATTACKS**
Eguakitza: 22:30
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**EL DEDO EN LA LLAGA**
Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ *Independence day* filmea parodiatu nahirik-edo, **Tim Burton** zuzendariaren (*Eduardo Manostejiras*) azken filmean martiztar xelebre batzuk dira protagonista nagusiak. Besteak beste, Estatu Batuetako presidenteak (**Jack Nicholson**) eta bere emazteak (**Glenn Close**), *Kessler* profesoreak (**Pierce Brosnan**) edo **Tom Jones** berak ere martiztarren txantxak jasan beharko dituzte...

▼▼ *Angel* (**Juanjo Puigcorbe**) eta *Eduardo* (**Karra Elejalde**) Argentinan zehar jira bat egiten ari diren bi aktore dugu. Hango hiri batean *Roberto* (**Dario Grandinetti**) beren lagunarekin elkartuko dira. *Roberto* eta bere ikasleak antzeztoki bat zabaltzeko ahaleginetan dira baina uste baino oztopo gehiago gainditu beharko dituzte...

## Deiak

▼ **1927an** jaiotako bergararren lagunarteko eguna datorren ekainaren 1ean. 13:15etan hildakoen oroimenez meza izango da Santa Marinan eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea Antxonin.

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du datorren egustenean, hilak 28, Seminarioan 18:30etan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **Musika Eskola.** Ekainaren 1eko Udaberriko Kontzertuaren ostean herri-bazkaria izango da Espaloian. Txartelak Musika Eskolan bertan eskura daitezke maiatzaren 28ra arte.

▼ **Kontzertua.** Sanchis eta Jocano, gaur, ostirala, gaueko 11etan Pol-Pol tabernan.

## Ogia

▼ **Domeka 25:** Ogizun.

▼▼ **Pintura erakusketa.** Fernando Arenaza (argazkian) eta Juanjo Altuna pintoreen erakusketa ikusgai dago ekainaren 11ra arte Donostiako Olaetxea galerian (Aldapeta, 5). *Kolorea* izenburupean, Altunak eta Arenazak euren azken pinturak elkarrekin erakutsi nahi izan dituzte. Bien estiloak ezagutzeko aukera ezinhobea.



## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 23:** Mozos.
▼ **Zapatua 24:** Camacho.
▼ **Domeka 25:** Camacho.
▼ **Astelehena 26:** Puy.
▼ **Martitzena 27:** Guallar.
▼ **Eguaztena 28:** Estella.
▼ **Eguena 29:** Mozos.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •



KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

# Argazki erakusketa

## Bergara Hiria lehiaketako argazkiak

**Pol-Pol** Argazki Taldeak Udalaren laguntzaz antolatutako "Bergara Hiria XIII. Argazki Lehiaketa"ko lanik onenak ikusgai izango dira domekara arte Kultur Etxean. Ohikoa denez bi kategoria bereizi dira aurtengo edizioan ere eta irabazleak Agustin Gurrutxaga (zuribeltzean) eta Benito Cantero (koloretan) bergararrak izan dira. Benito Canterok, gainera, bigarren saria eskuratu du zuribeltzeko kategorian. Hirugarren saria, zuribeltzean, Alejandro Garai barakaldoarrak eskuratu du eta herriko onena, berriz, Daniel Santos izan da.



Benito Canteroren "Urbasa", koloretako sailean irabazle.

Koloretan, bestalde, Iñaki Delgado donostiarrarentzat izan da bigarren saria; hirugarrena Jose Antonio G. Laso bilbotarrak eraman du eta herriko onenari zegokiona Juan A. Unzurrunzagarentzat izan da. Pedro Cruz, Jabier Carballo eta Javier Fernandez Ferreras argazkilariek osatu dute aurtengo epaimahaia. Sari banaketa bihar zapatua arratsaldeko 7etan egingo da Kultur Etxeko erakustokian. Kategoria bakoitzeko lehen hirurek 25.000, 20.000 eta 15.000 pezeta gehi trofeo bana jasoko dute eta herriko onenei 10.000 pezeta eta trofeoa emango zaie.

**40 argazki ikusgai**

Sari banaketara bertaratzen direnek lehiaketako argazkirik aipagarrienak ikusteko aukera izango dute. Hamahirugarren edizio honetara 139 argazki aurkeztu dira (84 koloretan eta gainontzekoak zuribeltzekoen kategorian). Erakusketarako, berriz, 40 argazki aukeratu dira: zuribeltzeko 20 eta koloretako beste horrenbeste. Partaideen artean Bergarako 10 lagun izan dira baina partaidetzak behera egin du iazko edizioarekin konparatuz, 170 argazki jaso baitziren orduan. Lanen kalitatean ere eragina izan du horrek, epaimahaiaren iritziz iaz baino maila eskasagoa izan baitu aurtengo deiak. Hala ere maila bikaineko lanak ikusteko aukera izango da Kultur Etxean. Erakusketa, esan bezala, domekara arte izango da zabalik, Kultur Etxean ohiko orduetan.

**Agustin Gurrutxaga eta Benito Cantero bergararrak izan dira irabazleak**

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

ARREGI
Eraikuntza materialeak
Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

## Gora deskontrola

Kontrola, nazka haundia ematen didan hitza. Hainbat faktoreri loturik dagoen hitza ala beti daukagun hitza? Kontrolak kalean, klasean, lanean... Kontrolatuak sentitzen gara. "Kontrol" hitza beti dugu gure buruan, baita norberarentzat hitzegiten dugunean. Zerk eskatzen digu kontrolatzea gure izakera, gure ekintzak, gure iritziak e.a.? Dudarik gabe sistema honek, baina ez bakarrik betiko gaiak jasotzen dituen sistemak, hau da, ekonomia, politika..., gure harremanetan "besteekin" ere egiten dute gure aspektu horiek kontrolatzea (ez mintzeko ondoan duzun pertsona bat, baita pertsona hori ez "lotsatzeko" besteen aurrean zuk zerbait egin edo esan duzunean). Benetan librea naiz? Zerk eskatzen dit niri hainbeste tolerantzia? Nola heldu naiteke askatasunera gogoan dudana egiteko ez dudanean egiten?

Uste dut erantzun bakarra izan daitekeela sistema honek sortu duela eragin bat pertsona askorengan (adibidez telekomunikabideen bitartez, diruaren bitartez...). Honek egiten gaitu ezberdinak, gaiztoak besteekin, eta amorrua sentitzea. Honekin guztiarekin bakarrik esango dut "besteek" sortzen duten eraginagatik, gora deskontrola!!

BERGARAR GAZTE BAT (72.446.057)

## Herri bazkaria

Gazte koadrila bat gara eta asteartean Plazan izan zen herri bazkarian izan ginen. Bazkari horretara joan ginen lehen aldia izan zen eta egia esan primeran pasa genuen, errepikatzeko modukoa!! Datorren urtean ere ziur joango gara, lagunartean ondo bazkaldu eta bazkalostean ere oso gustora egon ginelako: menu ona, giro bikaina, poteo alaitsua..., ezin gehiago eskatu. Eta prezio onean gainera, 1.000 pezeta besterik ez genituen ordaindu eta. Aurtengo Pazkuei amaiera ezinhobea eman genien. Horregatik antolatzaileei ekimen hau martxan jartzea eskertu beharrean gaude. Entzun dugu orain dela urte batzuk ere herri bazkaria egiteko ohitura zegoela baina jendearen erantzun eskasagatik galtzen joan zela. Orain Jardunek ohitura hori berreskuratu eta erantzun ona lortu du jendearen aldetik. Ea datorren urtean jende gehiago animatzen den. Nik behintzat guztiak animatuko nituzke, bai etxean geratzen direnak eta bai beste toki batzutan bazkaltzen duten herriko koadrilak ere. Polita izango zen herriko plaza betetzea. Hala ere, kritikatxo bat egin nahi nieke antolatzaileei: bazkalostean antolatutako karaokean ez zegoen abesti martxosorik, guztiak nahiko lasaiak ziren (Aitormena Ertzainak taldearena, Lau teilatu Itoizena eta horrelakoak) eta horrek giroa zertxobait moteldu zuen. Beraz, hurrengo urtean karaokea antolatzekotan, kantu martxosoagoak ondo egongo lirateke. Bestela, guztia primeran irten zen eta trikitilariak ere oso ondo portatu ziren. Zorionak guztiei eta datorren urtera arte!!

I. LARRAÑAGA ETA LAGUNAK

## Tiiira biraka

ALEX UGALDE



### Mendi irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok Pancorbo-Friasera mendi irteera antolatu dute domekarako. Irteera goizeko 8etan Frontoian izango da egun guztirako.

### Komiki lehiaketa

Jarduneko Kultura taldeak antolatu duen Komiki Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, ekainaren 6a baino lehen Masterrekara edo Gartzela Zaharrera bidali beharko dituzte komikiak. Lehiaketan Euskal Herri osoko 14 urtetik gorakoek har dezakete parte eta lanak euskaraz idatziak izan beharko dira. Adinaren arabera hiru talde bereiztuko dira.

**HILDAKOAK**

**Pilar Gallastegi Rivera**
Maiatzak 5, 90 urte.
**Andres Alberdi Lizarralde**
Maiatzak 7, 66 urte.
**Jesus Larrañaga Orbea**
Maiatzak 12, 80 urte.
**Serafin Perez Rodriguez**
Maiatzak 14, 69 urte.
**Felix Azula Irasuegi**
Maiatzak 14, 60 urte.
**Emilio Ojea Larrañaga**
Maiatzak 16, 73 urte.

**JAIOTAKOAK**

Eguenean Epaitegian greba egin zutenez, aste honetan ezin izan dugu jaiotakoen berri izan.

# Abiadura Haundiko Trena eta Industrialdeari buruzko plenoa


Industrialdeari hainbat lursail zeditzea erabaki zuen udal batzarrak.

**Joan zen eguakitz** eguerdian, jaien atarian, egindako Osoko Bilkuran, Industrialdeako lurzoruei buruzko, eta Abiadura Haundiko Trenari buruzko erabakiak hartu ziren. Plenoa eguerdian izan zen eta HBko zinegotziak ez ziren agertu, sarritan adierazi duten bezala, Plenoa lan orduetan egiten denean, ezinezkoa zaielako agertzea. Beraz, Osoko Bilkuran aztertu ziren sei puntuak, gobernu taldea osatzen duten hiru alderdietako zinegotzien baiezko botuekin onartu ziren. Plenoan, Udalak Altos Hornos de Bergara enpresari bigarren sektorean duen partaidetza erosi eta Bergarako Industrialdeari zeditzea, eta Kutxari 17.972 metro karratu erosteko duen eskubidea ere Industrialdeari zeditzea erabaki zen.

### Abiadura Haundiko Trena Epeletik

Bestalde, EAEko Trenbide Sarearen abantzeari proposatutako alternatiba eta iradokizunen inguruan, abiadura haundiko trenbide sarearen egituraketa definitzeko aurkeztu zen txostenari erantzunez, Udalak iazko martxoan Plenoan hartutako erabakia berretsi zuen eguakitzean.

Angiozarko bailarak duen balio ekologikoa babesteko helburuarekin, Euskal "Y" Bizkaiarekin lotzeko trazatua Epele bailaratik egitea proposatu zuen Udalak. Angiozarko batzarrak orain dela bi urte proposatu zion Udalari, Abiadura Haundiko Trenaren trazatua Angiozarko bailaratik egin beharrean Epeletik egitea. *"Batzordeak abiadura haundiko trenaren kontrako iritzia eman zuen, baina nonbaitetik pasatzekotan hobe zela Epeletik pasatzea esan genion alkateari, Epelen baserri gutxiago dagoeta"* dio Gorka Elortzak, Angiozarko auzo alkateak.

Bergarako Udalak iaz Garraio eta Herrilan sailari egindako proposamena ez ei da kontuan hartu Dokumentuaren abantzean eta horregatik Deba Garaiko mankomunitateari eskatu dio, proposatutako alternatibaren bideragarritasun estudioaren erredakzioa sustatu dezala. Garraio eta Herrilan sailari, bestalde, aurkezten den estudioa aintzakotzat har dezala eskatzea erabaki zen eguakitzeko Plenoan.




### Dantza txapelketa ETBtik

Domekan Bergaran jokatu zen dantza sueltoko Euskadiko Txapelketako azken fasea ETBtik ikusi ahal izango da datorren eguenean, hilak 29, gaueko 10:30etan.

### Antzuolako Bake Epailea

Antzuolako Bake Epaitegiko Bake Epaile kargua eta bere ordezkoa hutsik geldituko dira hemendik gutxira, kargu horiek bete dituzten pertsonek lau urteko epea bete dutelako. Hori dela eta, aurrerantzean kargu horiek bete nahi dituzten guztiek izena eman dezakete Antzuolako Udaletxean, ondoren Udalbatzarrak horietatik egokiena hautatzeko. Antzuolan bizi eta adin nagusikoak izatea dira eskatzen diren baldintzak.

### Bertsoak eta pegatinak

Antzuolako Idolazek antolatu duen VI. Bertso paper lehiaketara aurkezteko epea maiatzaren 30ean bukatzen da. Lehiaketan, Antzuolan jaio edota bertan bizi direnek har dezake parte eta adinaren arabera, lau talde bereiztuko dira. Lehen eta bigarren kategorietan, bertsoak aurkezten dituzten guztiei emango zaie saria, eta 3. eta 4. kategorietan, berriz, bi onenak sarituko dira. Lanak Antzuolako Udaletxeko Euskara Zerbitzuan edo Udal liburutegian aurkeztu behar dira. Bestalde, jaietarako pegatinaren mezua aukeratzeko antolatu den lehiaketan parte hartu nahi dutenek ekainaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dute esaldia. Euskararen erabilera bultzatuko duen mezuren bat aurkeztu behar da eta aukeratzen den esaldia jaietako pegatinan jarriko da.




Eguakitzean, jaien atarian, herriko kaleetatik zehar egindako manifestazioa.

## Tavexeko zuzendaritzaren eta langileen arteko kontaktuak etenda

### *Zuzendaritzak etorkizunerako plana erretiratu egin du*

Gaur, ostirala, 63 egun beteko dituzte huelgan Algodonera eta Tavesako langileek. Jaien aurretiko astean negoziazioak apurtu egin zirenetik -inbertsioen eta langile berrien soldaten inguruan sindikatuen eta zuzendaritzaren arteko ezberdintasunak zirela medio-, eguen arratsaldera arte, behintzat, ez da kontaktu berririk izan.

Azken egun hauetan, langileen mobilizazioez aparte, zuzendaritzak prentsan kaleratu dituen idazkiak izan dira notizia. Eguastenean DVn agertutako iragarki batean, zuzendaritzak ELAko Xabier Larrañaga eta Iñigo Alberdiri botatzen zien Tavesa eta Algodonerako huelga, hain luzea izatearen errua. Xabier Larrañagak Berrigarari adierazi dioenez, *"idazkia irakurri ondoren, argi geratu da zuzendaritzak ez dituela onartzen sindikatu baten izaera eta jokabideak, hauek beraien iritzi berekoak ez badira. Bestalde, idazkian esaten direnak ez dira ez egi ez gezur, XIX. mendeko ugazaben txakurren zaunk ahotsak besterik ez dira"*. Larrañagak zuzendaritzak idazkia ordaintzeko 400.000 pezeta gastatu izana salatu zuen.

Bestalde, Tavexeko administrazio kontseilua eguastenean Madrilen bildu zen. Bertan, Bergarako lantegietako egoerari buruz jardun zen. Bilera ostean, etorkizunerako plana (inbertsioak, langile berriak...) erretiratu egin dituela, eta arazoari lehen bait lehen irtenbidea topatzeko itxaropena duela esan zuen zuzendaritzak prentsara bidalitako ohar baten bitartez.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

# BKE ez dago prest Agorrosinen konponketa bere gain hartzeko

## *Oraingoz, zuloa lurrez estaliko da bakarrik*

Bergara Kirol Elkarteak, Agorrosingo zuloa lurrez tapatu eta futbol zelaia erabiltzea erabaki du. Futbol zelaian azterketa geoteknikoa egin zuen Labein enpresak, beste 700.000 pezeta eskatu zituen futbol zelaiaren arazoari irtenbidea topatzeko egin beharreko lanen kostua zehazteko. Gogoratuko duzuen bezala, azterketa geoteknikoaren txostena egiteko bi hilabete inguru eman zituen Labeinek eta joan zen apirilaren 15ean eman zizkien emaitzak BKEko eta Udaleko ordezkariei.

Konponketak egin baino lehen aurrekontua eskatu zitzaion Labein enpresari eta hauek lehenbailehen bidaltzekotan geratu ziren. Orain dela pare bat aste, ordea, aurrekontua egiteko beste azterketa bat egitea komeni zela eta, 700.000 pezeta eskatu zituen Labeinek. Lehenengo azterketa geoteknikoak ia bi milioi pezetako kostua izan zuen eta Udalak ordaindu zuen, baina bigarren ikerketa Bergara Kirol Elkarteak bere gain hartu dezan nahi du Udalak eta horrela jakinarazi die Agorrosingo jabeei.

Bergara Kirol Elkarteak Gipuzkoako Futbol Federazioaren ateak jo ditu bigarren azterketa hau finantziatu dezan, baina Federazioan dirurik ez dutela erantzun die. Bitartean, Pedro Egaña, Iñaki San Jose eta Iñigo Zaitegik osatutako komisioa lanean dihardu, handik edo hemendik dirua lortu eta Agorrosin eta Ipintza konpotzeko. Asmoa, Ipintzan belar artifiala jarri eta Agorrosin behar den moduan konpontzea da, baina dirurik lortu ezean, zuloa lurrez estali eta datorren denboraldia Agorrosinen hasiko da.



Agorrosinen, urteetan zehar, sortu diren zuloak. Goiko argazkia 1955koa da. Bigarrena, ostera, 1978koa eta behekoa, gaur egungoa.

### Jubilatuak Gorlara

San Joxepe jubilatuen elkarteak Gorlara mendi irteera antolatu du Legazpi, Irun eta Errenteriako jubilatuekin batera, hil honen 30ean. Irteera goizean goiz egingo da eta 11etan salda eta txistorra banatuko dira Altsasun. Arratsaldeko ordubietan, berriz, bazkaria izango da toki berean. Menua honako hau izango da: entsaladilla, oilaskoa, tarta izozkiarekin, kafea eta kopa. Guztia 1.600 pezetaren truke. Interesa dutenek Jubilatuetan eman dezakete izena lehen bait lehen.

### Ibilaldia Pirinioetan

Antzuolako Arrola Mendizale elkartearen 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, udan Pirinioetan astebeteko trabesia antolatzeko asmoa dago. Ziurrenik abuztuaren 11n egingo da irteera. Ibilaldi posiblea eta bestelako gauzak aztertzeko datorren asteazkenean, hilak 28, arratsaldeko 8etan bilera izango da Arrola elkarteko lokalean.

### Termak Donostian

San Joxepe jubilatuen elkarteak, adinduen osasun fisiko zein adimenezkoa hobetzeko termak hartzeko programa eskaintzen die hirugarren adinekoei. Sei egunetako tratamenduak (ekainak 30, eta uztailak 2, 4, 7, 9 eta 11) 13.580 pezeta balio du (autobusa eta tratamendua barne), eta 40.000 pezetatik beherako diru sarrerak dituztenentzako 5.000 PTA. Izen-ematea lehenbailehen egitea komeni da Jubilatuetan.

Bolintx0
OKINDEGIA
domeketan ere zabalik
Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26


ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

# Langabezia eta pobrezia

## Lege-proposamena bultzatzeko herri ekimena

**Euskal Herriko hainbat kolektibok bultzatuta, giza eskubideen gutunerako lege proposamena Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzeko herri ekimena jarri da martxan. Bergarar talde batek ere lehen urratsak eman ditu dagoeneko kanpaina honetan laguntzeko eta datorren eguenean, hilak 29, beste bilera bat egingo dute Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.**



ARTXIBOA

Euskal Autonomi Elkartean, biztanle aktiboen %22a langabezian dago.

Langabeziaren eta pobreziaren aurkako plataforma" joan zen urtean eratu zen eta helburu nagusia "Giza eskubideen gutuna" Eusko Legebiltzarren aurkeztu ahal izateko beharrezkoak diren 30.000 sinadura biltzea da. Ehun bat kolektibok euren atxekimendua azaldu dute jadanik, tartean gobernuz kanpoko erakundeak, giza taldeak eta hainbat sindikatu. Legebiltzarrean ordezkaritza duen edozein alderdi politikok aurkeztu zezakeen legeproposamena baina, herri ekimena izanik, sinaduren bilketaren bitartez eraman nahi da lege proposamena Parlamentura. Sinadurak biltzeaz gain, enplegu banaketa eta oinarrizko irabaziei buruzko eztabaida piztu nahi du plataforma honek.

Gaur egun Euskal Autonomi Elkarteko 45.000 familia erabateko pobrezian bizi omen dira eta biztanle aktiboen %22a langabezian dago. Era berean, INEMen izena emana duten 200.000 lagunetatik 180.000 lagunek ez dute Estatutik prestazio sozialik jasotzen eta %46a iraupen luzeko langabetuak dira.

1989tik 1995era bitartean pobreziaren kontra borrokatzeko plangintzan jasotako prestazio ekonomikoei esker EAEko familien %5ari gutxieneko diru sarrera bermatu zaie. Hala ere, Jaurlaritzako Ongizate Sailaren txostenean jasotzen denez, dirulaguntza horiek aipatutako familien oinarrizko beharren %65a baino ez dute betetzen.

Egoera honen aurrean "Langabeziaren eta pobreziaren aurkako plataforma"k honako aldarrikapenak egin nahi ditu: asteko lanaldia 32 ordura murriztea, aparteko orduak ezabatzea, erretiroa 60 urtera aurreratzea, plurienpleoa desagertzea, kontratu ebentualak fijoak bihurtzea eta, azkenik, lan merkatutik kanpo daudenentzat (eta gutxienik urtebetez EAEn erroldatuta daudenak) errenta sozial baten eskubidea onartzea, 66.630 pezeta hilero hain zuzen ere. Errentaren onuradunek, horren ordainetan, Administrazioarekin akordio bat sinatu beharko lukete lan sozialen batzuk egitera konprometituz.

Herri ekimen legegilea bultzatzen dutenen artean, besteak beste, CCOO, UGT, ESK, USO eta EILAS sindikatuak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Eguzki eta Eki talde ekolojistak, Kakitzat eta AOC antimilitarista taldeak, bazterketa sozialaren kontrako elkarteak, auzo elkarteak, kristau komunitateak eta hainbat gizarte mugimendu aurkitzen dira.

Bergaran ere plataforma honen inguruko taldetxo bat eratu nahi da eta dagoeneko pare bat bilera egin dira Kultur Etxean.

# “Helburu nagusia gizarte mailan pobrezia eta marjinazioaren inguruko eztabaida piztea litzateke” ISABEL SALUD

Isabel Salud talde horretako kide baten hitzetan, *“datorren ostegunean egingo dugun bilera horretan jarraitu beharreko pausoak aztertuko ditugu eta, beraz, interesatutako guztiei Kultur Etxera hurbiltzeko deia egin nahi genieke. Orain arte egindako bileratan 16 bat lagun izan gara eta bere kontura azaldu den jendea, Elizarekin zerikusia dutenak (Caritaseko partaideak tartean), sindikatuei lotutakoa eta beste hainbat etorri dira. Jendearen jarrera oso ona izan da eta inguruko herrietan ere lanean hasi dira jadanik”* Antzuolan esate baterako talde bat ari da lanean eta joan zen zapatuko San Isidro ferian eta herriko enpresetan ere firmak batzen izan dira.

Plataforma honek uztaila bitartean jaso behar ditu beharrezkoak diren 30.000 sinadurak. Lege-proposamena aurkeztuta dago, baina sinadurak jasotzea ezinbestekoa da legea tramitatzeko, Legebiltzarrean eztabaidatzeko. Isabelen ustetan, *“jakin badakigu lege-proposamen hori ez dela onartuko baina beharbada hori baino inportanteagoa litzateke gizarte mailan pobrezia eta marjinazioari buruzko eztabaida sortzea. Proposatzen diren puntu horiek ia zientzia fikziozkoak dira gaurko gizartean baina jendeak gizarte honek sortzen dituen gabeziak ezagutzea beharrezkotzat jotzen dugu. Langabeziak ez du soluziorik, produzitzeko dagoen sistemak berak sortzen du langabezia eta langileen portzentaia bat etengabe langabezian dago, pobrezian eta marjinazioan bizi da. Kalean arazo honen inguruko ezjakintasun haundia dago. Badirudi pobrezia ezkutatu beharreko gauza bat dela, baina inguruko udaletxetako ongizate sailetan, adibidez, pobreziaren arazoa nahiko ezaguna da, dirulaguntzen beharra duen jende asko dago eta ematen duenez egoerak txarrera jotzen du. Pentsa, enpresa bat istean, bere familia mantendu izan duen gizona kalera doala: bizi guztian lan berdina egitera ohituta, nora jo dezake 45 urterekin? Zein lantegitan hartuko dute berriz?”.*

Askotan ez da jakiten pobreziaren muga hori non dagoen. Isabelek emandako datuen arabera, *“Caritasek egindako ikerketaren arabera, pobreziaren muga horretatik behera bizi diren 8 milioi lagun dira Estatuan. Zeintzuk diren pobreak? Oso diru-sarrera txikia dutenak, sarrera iraunkorrik ez dutenak, laguntzaren baten beharra dutenak...”.*

Datorren eguneko bileran, egoera hori ezagutarazteko ideiak planteatuko dira; *“ez dakit, enpresetan, sindikatuen bitartez, firmak jasotzen ahaleginduko gara, kalean ere mahaiak jarriko ditugu, hitzaldiak ere antolatu daitezke, zineforum emanaldiren bat... guztion artean erabakitzeko gauzak dira eta ideia guztiak aztertuko dira; jendea lan egiteko prest azaltzea da inportanteena”* esaten digu Isabelek.



Plataforma honen inguruan Bergaran talde bat ari da lanean. Argazkian Kultur Etxean egindako bilera batean.

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorentzo, 25 BERGARA




# Agur Bitorianatxo agur

Bitorianatxo joan da eta bergararrok biharamuna kentzen saiatzen garen bitartean (ez da lan makala) 1997ko Pazkuak gogoratzeko ordua heldu da. Hasierako balantzea egiterakoan, **astebukaeran bestetan baino jende gutxiago** izan dela esan daiteke. Inguruko hainbat tokitan ere jaietan zeuden eta beste urte batzuetan baino kanpotar gutxiago ibili da aurtengo eguakitz eta zapatuan Pentekosteetan. Hala ere, jai giroak gora egin zuen domekatik aurrera. Eguraldiak gorabeherak izan baditu, juergarako gogoekin beste horrenbeste gertatu dela esan daiteke.

Eguakitzean jendetza ugari bildu zen Bitorianatxoren jeitsiera ikusteko, tartean, **Tavexeko langileak eta presoen senide eta lagunak**. Tavexeko langileek grebaldia amaitzeko soluzio bat eskatzen zuten; Senideakeko kideek, berriz, euskal presoen Euskal Herriratzea, pankarten bitartez. Jeitsieraren ondoren eta jai giroa bazter guztietan nagusitzen zela **"Alkateak eta politikoak Bergaran" izeneko argazki erakusketa** zabaldu zen Pleno aretoan.

Eguakitzean bertan, Jarduneko Gazte Taldeak antolatutako **graffiti lehiaketan Aitor Markina eta Gorka Ortega** (azken hau Berrigarako kolaboratzailea) bergararrek irabazi zuten Euskaraz txo!! izenburuko lanagatik; bigarren Iñaki Bokos lasartearra sailkatu zen eta hirugarren saria Imanol Garaizabal elorriotarrak eraman zuen.

Zapatu goizean gaztetxo ugarik parte hartu zuen **plastika lehiaketan**. 73 neska-mutiko aritu ziren lehian eta pintura, marrazki eta plastilinaz egindako lanik onenak saritu ziren. Bestalde, elkarteen arteko **sukaldaritza**

ARGAZKIAK: AITZIBER ARETXAGA ETA BERRIGARA



































**lehiaketa Sagarpe** elkarteko Jose Arrietak eta Ramon Gabilondok irabazi zuten. Bigarren postuan Pikupe elkarteko Jose Mari Larrañaga eta Luis Mari Beistegi sailkatu ziren eta hirugarren tokian, Iñaki eta Unai Olabarria, Murinondo elkartekoak. Zaleakek Agorrosinen antolatutako **atletismo froga konbinatuetan**, bestalde, **Aritz Balda** izan zen onena. Bere atzetik, Mikel Gallastegi eta Ion Beistegi sailkatu ziren.

Zapatu arratsaldean, berriz, **Jose Ramon Aiastui presoari ongi-etorria** egin zitzaion San Martin plazan. Jende asko bildu zen bertan "Txerra" agurtzeko; lagunek aurreskua eskeini zioten eta bertsolariak ere izan ziren. Aiastuik hainbat opari jaso zituen eta bildutakoei eskerrak eman zizkien jasotako agurragatik. Astelehenean ere presoen aldeko ekintzak izan ziren. Herriko hainbat lagunek, Bergarako preso politikoen karetekin, presoei dagozkien eskubideak aldarrikatu zituzten eta presoen egoeraren berri eman zuten.

Bestalde, zapatu gauean **Gestorek deitutako manifestazioa** izan zen herriko kaleetatik zehar. **Goizaldera, berriz, istiluak izan ziren**. Burua estalita zeramaten dozena bat lagunek Epaitegiko fatxadari su eman zioten, Euskadiko Kutxak Frontoian duen bulegoan beste koktel bat jaurti zuten eta kristalak apurtu zituzten; Batzokia eta Correoseko egoitza erasotu zituzten eta horrez gain herriko hainbat kontenedore erre zituzten. Ertzaintzak, bestalde, pilotak jaurti zituen hainbat manifestariren kontra.

Domekan egunean zehar jende ugari ibili zen kalean (gauean ez hainbeste), Bandaren emanaldia, jota kantariak eta dantza sueltoko txapelketa, besteak beste, iragarrita zeudelako. Goizean, goiz **LXII. Pentekostes Saria txirrindulari lasterketari** hasiera eman zitzaion eta 157 kilometro egin ondoren Iberdrolako **Bittor Goenaga** soraluzetarra izan zen garaile, Ibarga-

raiko helmugan esprintean Unai Yus eta Oier Alberdiri aurre hartu eta gero. Bestalde, 14 urtez azpikoen **Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan Xabier Azurmendi zegamarrak eta Janire Urbieta bergararrak osatutako bikoteak irabazi zuen**; bigarren, Ekaitz Larrañaga eta Ainhoa Juaristi azkoitiarrak sailkatu ziren eta hirugarren, berriz, Alex Torre eta Iosune Fernandez bergararrak. 27 bikote aritu ziren lehian. **Arratsaldeko zezenketan, bestalde, 1.000 lagun inguru** bildu ziren (beste urteetan baino gutxiago) eta Callejak eta Barrerok bina belarri eskuratu zituzten. Zezenzaleak pozik azaldu dira antolatutako ekitaldietan jasotako erantzunarekin.

**Bideberriko kontzertuek ere oso erantzun ona** izan dute eta musikazaleak gustora geratu dira eguakitz, zapatu eta astelehen gauetan antolatutako emanaldiekin. Talde bikainak izan dira aurten Bideberrin eta kanpotar ugari ere hurbildu da txoznetara.

**Martitzeneko herri bazkarian jende piloa** elkartu zen San Martin plazan eta jai giroa eta umorea nagusitu ziren. Guztira, 183 lagun izan ziren elkarrekin bazkaltzen. Bazkalosteko karaokean ere partaidetza haundia izan zen eta antolatzaileek laguntzen ibili ziren denei eskerrak eman nahi dizkiete.

**Pilota jaialdia** ezin ahaztu. Nobedadeak eta kartel polita iragarri zuten Asegarcek eta Altik Pazkuetarako. Penteskotes sariko txapeldunak **Titin eta Beloki** izan dira, finalean Unanue eta Zezeagaren kontra 22 eta 9 nagusitu ondoren. Banakakoan, bestalde, **Agirre** gertatu zen garaile, finalean Goñiri 22 eta 17 irabazi baitzion. Horrez gain, Nagorek Arretxeri errebantxa hartu zion lau t'erdian.

Jaietan bezala, jai biharamunean, jo eta ke aritu direnak Udaleko eta Garbileko **kale garbitzaileak** izan dira.















# Denok batera presoak Euskal Herrira



Dendaria

ALEX BARRUSO



Ikaslea

ASIER GABILONDO



Jubilatua

VALENTIN GANTXEGI



Langilea

PELLO GARITANO



Etxekoandrea

PAKI LARRAÑAGA



Ikaslea

AGURNE ZENITAGOIA

*Beste hauek ere euren atxikimendua adierazi dute:*

**PILAR ALTUNA**
**BARKERO BIDIANO**
**ANDONI EGUREN**
**LEIRE EGUREN**
**IZASKUN JIMENO**
**BITORIANOLARRAÑAGA**
**J.J. MADARIAGA**
**MARITXU OKINA**
**M.L. SAN VICENTE**
**ION ANDER UGARTE**
**ARRATE UNAMUNO**
**MARIAN ZUBIZARRETA**

## Goian sinatu dugunok geure egiten dugu ondorengo eskaera:

1. Nahi duten euskal preso guztiak, berehala Euskal Herrira ekarriak izan daitezela.
2. Gizaki orori bezalaxe, dagozkien oinarrizko eskubideen aplikazio integrala esijitzen dugu: gaiso sendaezinak eta kondenaren 3/4 bete dutenak kalera atera.

**Zuk ere, nahi baduzu, adierazi zure atxikimendua. Maiatzean zehar, larunbat goizetan, sinadurak biltzen egongo gara plazan.**

BERGARAKO PRESOAK EUSKADIRA EKIMENA

# Zer deritzozu "Guernica" koadroa Euskal Herrira ekartzeko ahaleginari?



**Milagros Retes**

Ez dut gaia jarraitu baina nire ustez Gernikan egon beharko litzateke, koadroa hemengoa bada lojikoena bertan egotea litzateke.



**Francisco Gomez**

Hemen baino hobeto, inon ez... Noski baietz!! Hona ekarri beharko lukete, ordua da eta. Ekarri eta betiko Euskal Herrian geratu.



**Ane Miren Etxebeste**

Oso ondo, normalena hemen izatea da, hemengo museoren batean. Kanpora eraman zuten moduan, ekartzea dute Gernikara edo Bilbora, berdin zait.



**Lorea Garitano**

Bilbon egon beharko litzateke hemengo gai bati buruzkoa baita koadro hori. Betirako hemen geratu beharko litzateke.



**Jose Maria Ugalde**

Ondo iruditzen zait bertara ekartzea, Euskal Herrian egotea izango litzateke onena; hauxe da leku aproposena.



**Iñaki Martinez**

Euskal Herrirako oso garrantzitsua litzateke koadroa hona ekartzea, azken batean sinbolo bat bihurtu baita, Ikurriña moduan..

Gallastegi
Jostundegia
Mahoizko lanerako jantziak
San Pedro ☎ 76 10 85

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
• AROZLAN MEKANIKOAK
• SUKALDEKO ARMAIRUAK
• HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK, etab.
• TARIMAK-PARKETAK
• NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
• PVCzko LEIHOAK
Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •



## Peruko tunelak

Ajea darie lerro hauei, bai euren exekuzioan eta baita edukian ere; oraindik ere iristen baitzaigu Fujimori autoritarioak bere burua omentzeko ospatu zuen festa odoltsuaren hatsa.

Bi izan dira Perun bere historian tunelik ospetsuenak. 1990ean MRTAko kide batzuk Canto Grande presondegitik irten ziren, euren lagunek 2 urte baino gehiagotan zulatu zuten 350 metroko zulo bati esker. Isilean zulatu eta mundu osoan entzun ohiartzuna. Odolik isuri gabe askatu zituzten armadun zaindariek adi-adi zaindutako presoak. Zazpi urte beranduago lurpeko beste pasabide bat, oraingoan batzuk, munduko komunikabideen lehen orriak bete zituzten.

Aurrekoan bezala, preso zeuden pertsona batzuk askatzea zen kontua. Emaitza, berriz, aski ezaguna dugu. Oraindik ere ez dira argitara agertu Limako japoniar enbaxadan egindako izugarrizko erasorako tunelgintzan ibili ziren 24 meatzariak. Inork ez daki ezer.

Kasualitatez, ekintza horretan hil zirenak halako gertaeren kontrako borrokan ziharduten, Peruko biztanle gehienak pobretzearen aurka, demokrazia aurpegia zuritzeko erabiltzen duen munduko ekonomiak Latinoamerikan ezarritako sistemen injustizien kontra. Errealitatea ezkutatu egiten da. Batzuk satanizatu eta beste batzuk sakratutzat jo; eta tartean zigorgabetasuna, Eduardo Galeano idazleak dioen bezala, terrorismoari (Estatuarena denean) ematen zaion saria.

**Jesus Mari KALBOETXEAGA**



## Guggenheim Madrilera

Hasiera hasieratik aitortu behar dut sarri ez ditudala ulertzen artearen lerro izkutuak, garbi esanda neronentzat "arte"aren itzulpen zuzena "izoztu" da. Dena dela, azkenaldi honetan euskaldun guzti guztiok bezala, bi mila duro inbertitu ditut (borondatearen aurka) Guggenheim erraldoi horretan. Bai, EAEko bizilagun orok (euskalduna edo ez) diru kopuru hori jarri dugu politiko batzuen haundikeria elikatzeko.

Orain, Gernika ekarri edo ez dihardute jotasua gure buru argiek. "Herrien arteko bakea", "benetan dagokion tokia", "historian zehar sortutako zorra"..., eta beste txotxolokeria mordo bat ahotan hartuta. Niri, zutabetxo honetatik, ekarpen bat egitea otu zait, nahiz eta jakin mundu ezberdinetan bizi garela erabakiak hartzen dituztenak eta gizaki gehienak. Pentsa dezagun zenbat kostatuko zaigun mila aldiz ikusi dugun "estanpatxo" hori lekuz aldatzea; eta burua lar berotu barik, pentsa, kultura edo arte munduan zenbat gauza egin daitezkeen dirutza horrekin. Ziur naiz balizko bidaia horren kostuarekin Deba Garaiko bazterretan kultura edota artea zabaltzen duten talde guztien urtetako presupuestoa bete daitekeela. Duda izpirik edukiz gero, galdetu antzerki, txotxongilo, bertsolari, dantza edota musika taldeei zer nolako baldintzatan mugitzen diren; eta ondoren, konparatu talde horiek sortarazten diguten irrifarra, koadroak ikusteak sortzen digun plazerrarekin....

Nere ustez zeoze ekartzekotan, hobe gure presoak ekartzea, askoz merkeago suertatuko litzaieke (geuk ordainduko genuke), eta horrek bai, benetan itxiko lukeela herri honek aspalditik duen zauri mingarri bat.

Guztiak kontutan harturik, agintariei eskatuko nieke euskal kulturaren hobe beharrez, Gernika ez ekartzeaz gain, Guggenheim bera ere Madrilera eraman eta sosa guzti horrekin benetazko kultura herrikoia bultza dezatela.

**Roberto IZAGIRRE**

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA



## Realarekin

**Bergarako bost gaztetxok** euren betiko ilusioa bete eta, Realeko jokalariekin batera, **Anoetako berdegunea** zapaldu ahal izan zuten orain pare bat aste. **Iñaki Mardaras, Ion Soto, Beñat Labaien, Ibon Labaien eta Xabier Moñux** realzaleak Racingen kontrako partiduan izan ziren eta partidu atarian oroimenerako argazkia atera zieten. Lastima egun horretan Aranzabalek ezin izan zuela jokatu, bosgarren tarjeta ikusi ondoren zigor partidu bat ezarri baitzioten. Argazkiaren eskumaldean ikus ditzakezue herriko promesak. Ea noiz ikusten ditugun Realaren hamaikakoan...



## Eskulan erakusketa

Astebukaeretan **Jarduneko Gazte Taldeak** Gartzela Zaharrean antolatzen ohi dituen ekitaldietan parte hartzen duten gaztetxoek eskulan erakusketa antolatu zuten Pazkuen atarian. Hamabi urtetik hamalaura bitarteko hainbat gaztetxok begiraleen laguntzaz egindako eskulanak erakutsi zituzten Kartzelan bertan eta, egia esan, apaingarriak egiteko orduan esku finak dituztela erakutsi zuten. Argazkian, erakusketan parte hartu zuen neska talde bat, alboan beren lanak dituztela. Badute bai lagunei opari ederrak egiteko aukera...


# SUKALDARITZA ETA GOZOGINTZA IKASTAROA

**Sukaldari profesionalek zuzendua**
*Hasiera:*
ekainaren 2an (astean egun bat)
*Iraupena:*
ekaina, uztaila eta iraila

*Antolatzailea:*
EROSKIko kontsumitzaileen Elkartea eta Eskola
*Prezioa: 2.500 PTA*
Izenematea, EROSKIn.

**Interesatuok zatozte MAIATZAREN 28an, arratsaldeko 7etan EROSKIko kafetegian egingo den BILERAra.**

## ■ Ertzaintza eta musika konpositore bergararrak

**Ertzaintzaren Musika Bandak** Euskal Herriko kanta ezagunak biltzen dituen diska konpaktoa kaleratu berri du eta *Agur jaunak*, *Gernikako Arbola* edo *Eusko gudariak* konposizio ezagunekin batera bi bergarar konpositoreren lanak ere entzun daitezke. Horrela, *Arkaute* eta *Gure zaindariak* lanak **Miguel Gonzalez Bastida**k konposatutakoak dira eta **Jose Maria** bere anaiak, berriz, *Ertzaintzaren himnoa* konposatu eta *Gernikako Arbola*ren armonizazioa landu du. Aipatutako konposizioak 1985 urtearen inguruan enkargatu zizkien Eusko Jaurlaritzak Gonzalez Bastida anaiei eta orain lan horiek diska konpaktoan entzuteko aukera dago. **Luis Maria Andres**ek zuzentzen duen Ertzaintzaren Banda 40 musikoz osatuta dago eta iaz 100dik gora emanaldi eskeini zituen.




## ■ Urrezko eztaiak



**Elorregiko Isasi baserriko Martin Luarizaristi** eta **Karmen Ormaetxea** senar-emazteek euren ezkontzaren urrezko eztaiak bete zituzten joan zen maiatzaren 1ean. Karmen eta Martin orain dela 50 urte ezkondu ziren **San Pedron** eta elkarrekin igarotako urte hauek ospatzeko San Prudentzion meza entzun eta jarraian familiartekoekin bazkaria egin zuten Zumelaga jatetxean. Bazkarian 40 bat lagun elkartu ziren, tartean Martin eta Karmeren sei semeak eta 9 bilobak. Guztiek egun ahaztezina igaro zuten. Zorionak!!

## Zertan *dihardute* ba?



**Jon Sanchez** 21 urteko gaztea izan da Udalak deitutako XII. Literatur lehiaketako irabazlea, nagusien mailan, "Ene bihotza oparitzen dizut" lanarekin. Gainontzeko kategorietan hauek izan dira irabazleak: 1989-90 jaiotakoen artean, Gorka Artola "Zenbakiak' lanagatik; 87-88koen artean Maite Plazaola ("Baratz majikoa"); Andoni Ezenarrok irabazi du 85 eta 86an jaiotakoen artean "Borragoma majikoa" lanarekin eta Goiatz Agirrek 82-84 bitartekoetan ("Hogei gramo azukreagatik"). Sari banaketa bihar zapatua eguerdiko 12etan izango da Zabalotegin.

igor eta Txomin
*Pintura orokorrean.*
*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*
*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*
ANTZUOLA ☎ 76 60 39
BERGARA ☎ 76 19 98

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Pili Manso

**Datorren ekainean zilarrezko eztaiak beteko ditu Optika Mansok. Hasieratik bertan ari da lanean Pili Manso (bi seme-alaba) eta denbora honetan hainbat belaunaldiren bista zaintzeko lanetan jardun du.**



*"Bergararrok nahiko bista ona daukagula esango nuke. Nik neuk betaurrekoak erabiltzen ditut presbizea daukadalako. Jendeaurrean abesteak lotsatzen nau"*

**- Zelako bista daukagu bergararrok?**
- Nahiko ona.
**- Kliente gazteak ala zaharrak dira nagusi?**
- Denetik dago.
**- Zuk zeuk betaurrekoak erabiltzen dituzu?**
- Bai, bista nekatua, presbizea daukat.
**- Betaurrekoak ala lentilak?**
- Batak ez du bestea kentzen...
**- Begien kolorea aldatzen duten lentilak erabiliko zenituzke?**
- Nik neuk ez.
**- Eta zein koloretakoa ikusten duzu etorkizuna?**
- Larrosa.
**- Begitan hartuta duzun norbait?**
- Inor ez, guztiok daukagu gure alde ona.
**- Miresten duzun pertsona bat?**
- Indurain.
**- Zure bertute bat?**
- Besteek esan behar...
**- Eta defektu bat?**
- Besteek asmatu behar...
**- Txikitan zer izatea nahi zenuen?**
- Margolaria.
**- Egindako azken oparia?**
- Gizonari bost litroko gasolina-bidoia, birritan gasolina gabe geratu gara eta...
**- Eta jasotako azkena?**
- Egun berean, lora sorta bat gizonaren partetik.
**- Zerk lotsarazten zaitu?**
- Jendeaurrean abesteak.
**- Urtaro bat?**
- Udaberria.
**- Asteko egun bat?**
- Ostirala!!
**- Jantzi bat?**
- Blusa.
**- Hobby bat?**
- Lorazaintza.
**- Kirolik egiten duzu?**
- Bai, eskia eta gimnasia.
**- Filme bat?**
- Un paseo por las nubes.
**- Liburu bat?**
- *La costilla asada de Adan*, Carmen Rico-Godoyrena.
**- Amets bat?**
- Orain arte moduan jarraitzea.
**- Apetito onekoa zara ala begiekin jaten duten horietakoa?**
- Apetito ona daukat.
**- Oporretarako toki bat?**
- Mendia eta plaia duen toki bat.
**- Jaietan, zer moduz?**
- Mena haranean izan gara...

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra. Tl. 76 71 19

EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta, 14 BERGARA

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2 behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

## ETXEBIZITZA

**Etxea** salgai Mugertzan. ☎ 76 05 88.

**Berrizteko** dauden bi duplex salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 57 36.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 54 86.

**Etxebizitza** salgai Artzamendin. ☎ 72 08 98 (gauez).

**Apartamentua** salgai Laredon. ☎ 76 44 34.

**Gela** bat konpartituko nuke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Duplex** bat salgai. 190 m2. ☎ 76 03 43 (gauez).

**Pisua** salgai herri-erdian. Kontsultarako egokia. ☎ 76 25 31.

**Pisua** alokairuan ekainetik aurrera Benidormen, hondartza ondoan. ☎ 74 20 31.

**Pisua** salgai Martokuan. ☎ 76 15 49.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauez).

**Pisua** salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

**Garajea** alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 45 10.

**Pisua** salgai Mugertzan. ☎ 76 53 79.

**Pisua** salgai Zarautzen. ☎ 76 53 69/13 34 67.

## DENETARIK

**Bainuko** altzariak oparitzen ditut. ☎ 76 44 34.

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 79 83 50 (Karmen).

**Donostian** ekainean pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 46 03 98.

**Umeentzako** kapota eta paseorako aulkia behar dut. ☎ 76 46 48.

**Umea** bizikletan eramateko jarlekua salgai. ☎ 76 20 32.

**Siberian Husky** txakurkumak salgai. Pedigree bikainekoak. ☎ 79 59 85.

**Renault 5 GT** Turbo kotxea salgai. ☎ 909 56 90 45/ 76 57 87.

**Peugeot 205** kotxea (SS-AG) salgai. ☎ 71 61 21.

**R-5 GTL** kotxea (SS-P) salgai. ☎ 79 81 35/77 93 30.

**Kontsola** bat salgai. 100 joku. ☎ 76 38 71.

**Seaska** berria salgai. ☎ 76 36 61.

**Nissan Vanette** furgoneta salgai. ☎ 76 07 61.

**Renault 5** kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauez).

**Zilarrezko** giltzatakoa galdu da San Pedro eta Konde artean. ☎ 76 10 39.

**Opel Kadett** kotxea salgai. ☎ 76 45 57.

## LANA

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 70 40.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Lanak** ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Klinika** auxiliar batek gaixoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

**Garbiketa** lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

**Ume zaindaria** behar da. ☎ 58 50 40.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut Bergaran. ☎ 76 33 26.

**Emakume** batek haurrak zaindu edo garbiketa lanak egingo lituzke. ☎ 76 19 74.

**Irlandar** batek ingeles klaseak gaztelerazkoekin elkartrukatuko lituzke. ☎ 907898339 (Catherine).

**Andrea** eskaintzen da sukaldari, garbiketa edo umezain lanetarako. ☎ 76 70 85.

**Enpresaritzan** diplomatuak OHOko klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

**Etxeko** lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 76 70 15 (8etatik aurrera).

*Deco-Textil*

ZANGITU

**Etxerako lentzeria**
**Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak**
**Bisiloak, tapizak, etab.**

**Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69**

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

IRAKASLE ESKOLA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

IRAKASLE ESKOLAk zera jakinarazten du: 1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela honako karrera hauetan:

INFORMAZIOA:
IRAKASLE ESKOLA
Tf. 71 41 57
20.540 Eskoriatza

**MAGISTERITZA**
Espezialitateak:
... HAUR HEZKUNTZA
... HEZKUNTZA BEREZIA
... ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

**HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura**
Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeen kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

# BERGARAKO osasun gida

**ALBAITARIAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19 | Zurradero, 6 behea | ☎ 76 70 67 |
| • ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • IRASTORZA BENGOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK) | Iribar baserria ANTZUOLA | ☎ 76 63 46 |
| • NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47 | Koldo Eleizalde, 28 | ☎ 76 27 97 |

**ANALISI KLINIKOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • LABORRA ISABEL | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |

**BARNE MEDIKUNTZA:**

| | | |
|---|---|---|
| • IRIGOYEN VICTOR | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |

**DENTISTAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ASTIAZARAN SOLOZABAL | Iparragirre, 1 behea | ☎ 76 27 95 |
| • BERGARA HAGIN KLINIKA | Bidekurutzeta 6, 2 | ☎ 76 05 77 |
| • GOROSABEL J. ALBERTO | Fraiskozuri, 5 behea | ☎ 76 56 88 |
| • IRIARTE IDOIA | Artekale 1, 1. C | ☎ 76 01 65 |
| • SUDUPE FELIPE | Matxiategi, 18 behea ezkerra | ☎ 76 07 66 |
| • GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. | S. Arrieta 3, 2. B | ☎ 76 38 54 |

**DERMATOLOGOA:**

| | | |
|---|---|---|
| • GARCIANDIA CRISTINA | Ramon Maria Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |

**FISIOTERAPEUTAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL) | Masterreka, 7 4. C | ☎ 76 43 71 |

**GINEKOLOGOA:**

| | | |
|---|---|---|
| • SERRANO DOKTOREA | Ramon María Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |

**MASAILARIAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • AGIRREZABAL JOSE JABIER | Boni Laskurain 1, 2. A | ☎ 76 15 74 |
| • AZPEITIA IRUNE | Agorrosingo igerilekuak | ☎ 76 20 51 |
| • CASANELLAS JABIER | Boni Laskurain 5, 2. E | ☎ 76 03 78 |
| • MARTINEZ LUIS JABIER | Masterreka 7, 3. A | ☎ 76 51 18 |
| • PAYROS AITZIBER | Bidekurutzeta, 46 behea | ☎ 76 52 62 |
| • ETXEBERRIA ANA BELEN | Errekalde, 6 ezkerra, ANTZUOLA | ☎ 76 60 13 |

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA:**

| | | |
|---|---|---|
| • BENITO ISABEL | Bidekurutzeta 46, behea | ☎ 76 52 62 |

**MEDIKUNTZA OROKORRA:**

| | | |
|---|---|---|
| • OXIRONDO KONTSULTATEGIA | Boni Laskurain 2, behea | ☎ 76 20 50 |

**PEDAGOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOJIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | Simon Arrieta 3, 2. E | ☎ 76 26 42 |

**PODOLOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ALTUBE EDURNE | Simon Arrieta, 2 | ☎ 76 07 84 |
| • AZPIAZU ARANTZAZU | Herri Lagunak, z/g. | ☎ 76 41 32 |

**PSIKIATRA:**

| | | |
|---|---|---|
| • GALLASTEGI PABLO | San Martin Plaza 2, 1. ezkerra | ☎ 76 26 64 |

**PSIKOLOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | | ☎ 76 14 80 |
| • URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 53 13 |
| • ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | Ramon María Lili, 2 | ☎ 76 30 76 |

**REUMATOLOGIA:**

| | | |
|---|---|---|
| • MORAGUES CARMEN | Ramon María Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

| 1 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. A Ze Flaxa Etxagi | 56 | 22 | 108 | 46 |
| 2. Errotagain | 52 | 22 | 98 | 56 |
| 3. Jauja OH Zerezos | 45 | 23 | 105 | 66 |
| 4. Bar Canalejas | 44 | 23 | 96 | 65 |
| 5. Arloteak/Oilagorra | 30 | 23 | 84 | 60 |
| 6. Azpeitxi Jatetxea | 29 | 23 | 75 | 66 |
| 7. Bildurbarek Opel/Lam | 26 | 23 | 93 | 98 |
| 8. Pagomendi | 25 | 23 | 59 | 74 |
| 9. Madura Industrias Goi | 24 | 21 | 57 | 83 |
| 10. Mongatxurra | 24 | 22 | 57 | 78 |
| 11. Ogizun | 22 | 21 | 61 | 94 |
| 12. Ortzi | 21 | 23 | 46 | 72 |
| 13. Ufala | 12 | 23 | 49 | 94 |

| 2 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Etxagi | 48 | 22 | 87 | 70 |
| 2. Agiñaspi | 34 | 23 | 75 | 70 |
| 3. Kayak Os Jardineiros | 37 | 23 | 91 | 67 |
| 4. Artusamak Bergatrans | 34 | 23 | 80 | 68 |
| 5. La Juve | 33 | 24 | 82 | 73 |
| 6. Agirrebeña Jatetxea | 33 | 22 | 76 | 67 |
| 7. Haltzari | 32 | 22 | 61 | 73 |
| 8. Ezinleike | 31 | 24 | 77 | 90 |
| 9. Eri | 27 | 21 | 65 | 82 |
| 10. Soropotroak | 26 | 21 | 48 | 51 |
| 11. Indargorri | 23 | 22 | 56 | 107 |
| 12. Autoberezi | 22 | 22 | 83 | 100 |
| 13. Uve Bikoitza Jam | 0 | 0 | 0 | 0 |

| 3 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Guadalest | 55 | 23 | 91 | 38 |
| 2. FAC | 50 | 22 | 99 | 46 |
| 3. Nekrofilikos | 42 | 23 | 94 | 86 |
| 4. PJS | 39 | 24 | 88 | 65 |
| 5. Jakina Patxaran Team | 36 | 24 | 90 | 74 |
| 6. Txipiron | 35 | 22 | 71 | 59 |
| 7. Nahikari Hooligans | 30 | 23 | 72 | 66 |
| 8. Moskis | 30 | 24 | 74 | 51 |
| 9. Igandekoak | 27 | 22 | 52 | 74 |
| 10. MRW | 23 | 23 | 74 | 88 |
| 11. Ganbara | 19 | 22 | 70 | 86 |
| 12. EH Biterrak | 16 | 22 | 49 | 78 |
| 13. Construcciones Bergara | 0 | 0 | 0 | |

| 4 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Manitou | 66 | 22 | 188 | 29 |
| 2. Arbe Kirolak | 56 | 23 | 135 | 49 |
| 3. Matxakategi | 42 | 23 | 98 | 54 |
| 4. SLO | 40 | 23 | 95 | 56 |
| 5. Etengabe | 39 | 22 | 64 | 55 |
| 6. Xurrupak | 31 | 22 | 46 | 80 |
| 7. Komando Piperrak | 28 | 23 | 99 | 107 |
| 8. Panoramix | 26 | 22 | 85 | 143 |
| 9. Pata Negra | 26 | 23 | 50 | 83 |
| 10. Polideportivo Taberna | 19 | 24 | 58 | 146 |
| 11. Amilotx | 19 | 24 | 49 | 92 |
| 12. Aldoka Maldoka | 12 | 23 | 51 | 82 |
| 13. Osintxu | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14. Pittixak | 0 | 0 | 0 | 0 |

## Jokoz kanpo



### Gurutz Beitia
***Fac***

**Zer moduz txapelketa?**
Oso ondo. Joan zen urtean mailaz igo genuen eta orain 2. postuan gaude.

**Zure taldearen gauzarik onena?**
Ez garela gure artean haserretzen. Jokalari guztiak kuadrilakoak gara eta txikitatik elkarrekin jokatzen ari gara. Ez daukagu ezer txarrik.

**Kanporatu zaituzte inoiz?**
Bai, baloia eskuarekin ikutzeagatik.

**Partiduak goizez ala arratsaldez?**
Arratsaldean lehenengo orduan.

**Txapelketako talderik onena?**
Jauja OH Zerezos.

**Jokalaririk onena?**
Aitor Anton.

**Sartu duzuen goleadarik handiena?**
10 eta 1 Xurrupak taldeari.

**Eta jasotakoa?**
6 eta 1 Pagomendik.

**Ze postutan amaitzea espero duzue?**
Lehenengoak edo bigarrenak.

**Liga profesionaleko jokalaririk onena?**
Ronaldo.

**Munduko kirolaririk onena?**
Indurain.

**Euskal Herrikoa?**
Indurain.

**Jateko plater bat?**
Arroza.

## ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Bildurbarek Opel/Lam-Jauja OH Zerezos | 6-7 |
| Ufala-Arloteak/Oilgaorra | 4-6 |
| Azpeitxi Jatetxea-A Ze Flaxa Etxagi | 8-0 |
| Ortzi-Bar Canalejas | 0-4 |
| Arloteak/Oilagorra-Ortzi | 2-1 |
| Ufala-Mongatxurra | 0-3 |
| Madura Industrias Goi-Pagomendi | 2-2 |
| Errotagain-Bar Canalejas | 8-2 |
| La Juve-Agirrebeña Jatetxea | 2-3 |
| Ezinleike-Agiñaspi | 6-7 |
| Soropotroak-Kayak Os Jardineiros | 2-2 |
| Haltzari-Autoberezi | 1-10 |
| Etxagi-Agiñaspi | 2-5 |
| Eri-La Juve | 3-3 |
| Soropotroak-Ezinleike | 0-3 |
| Artusamak-Agirrebeña Jatetxea | 0-3 |

## ■ PARTIDUAK

**Zapatuan barruan**

**16:00:** Errotagain-Madura • **A Ze Flaxa Etxagi**
**17:00:** Madura-A Ze Flaxa • **Bildurbarek Opel/Lam**
**18:00:** Bildurbarek Opel/Lam-Ogizun • **Ortzi**
**18:30:** Ogizun-Ortzi • **Azpeitxi Jatetxea**
**19:30:** Azpeitxi Jatetxea-Pagomendi • **Ogizun**

**Zapatuan kanpoan**

**16:00:** Haltzari-Eri • **Soropotroak**
**17:00:** Soropotroak-Indargorri • **Eri**
**18:00:** Aldoka Maldoka-Manitou • **Xurrupak**
**19:00:** Xurrupak-Etengabe • **Aldoka Maldoka**

**Domekan barruan**

**16:00:** Errotagain-Mongatxurra • **Agiñaspi**
**17:00:** Eri-Agiñaspi • **Artusamak**
**18:00:** Artusamak-Autoberezi • **Kayak Os Jardineiros**
**19:00:** Etxagi-Kayak Os Jardineiros • **FAC**
**20:00:** FAC-EH Biterrak • **Etxagi**

**Domekan kanpoan**

**09:00:** Txipiron-Guadalest • **Nahikari Hooligans**
**10:00:** Txipiron-Nahikari Hooligans • **Igandekoak**
**11:00:** Igandekoak-Ganbara • **Txipiron**
**12:00:** Madura-Jauja OH Zerezos • **Bar Canalejas**
**13:00:** A Ze Flaxa Etxagi-Bar Canalejas • **Madura**

## ■ OHARRA

Aste honetarako iragarrita dauden partidu guztiak jokatu beharko dira, baita kanpokoak ere, nahiz eta euria egiten hasi. Kanpoaldeko edozein kantxatan jokatu beharko da.

## Gipuzkoako txapeldunak



BKEko infantil mailako futbol taldeak bere mailako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen joan zen larunbatean jokatutako partiduan. Jose Mari Aranburu "Tximis"en mutilek partidu bikaina jokatu zuten eta bigarren postuan geratu diren Union Txikiri 4 eta 3 irabazi zioten, Aranburu atzelariak azkenengo minutuetan sartutako gol ikusgarri bati esker. Sari banaketan Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko zuzendaria izan zen. Partiduaren ostean jokalari, entrenatzaile eta zuzendaritzakoek bazkaria egin zuten Pertxa elkartean.




## Muruamendiaraz garaile

Iker Muruamendiaraz eta Eneko Galartzak Bergara Hiria torneoa irabazi zuten 22 eta 19 irabazi ondoren Apezetxea eta Errastiri. Irabazleek izerdi asko bota behar izan zuten, 19 eta 13 galtzen joan zirelako. Momentu horretan Muruamendiarazek partiduaren ardura arte zuen eta Galartzaren laguntzarekin eta Errastiren huts batzuei esker 22raino zuzenean joan ziren. Junior mailako finala ere oso parekatua izan zen eta Saralegi eta Gastesik 22 eta 20 irabazi zieten Nalda eta Legorbururi. Aipatzekoa da torneoan zehar bergarar pilotazaleek emandako erantzun bikaina, udal pilotalekua beteta izan baita torneoak iraun duen bitartean.

### Preferenteko taldea larri

BKEko preferente mailako futbol taldeak derrigorrez irabazi behar dio domekan arratsaldeko 5etan, Agorrosinen, Pasajes taldeari mailari eutsi nahi badio. Garaipena lortu arren, gainontzeko taldeek egiten dutenaren zain egon beharko du. Izan ere, liga gaur amaituko balitz mailaz jeitsiko litzateke Azpiazuren taldea.

## Lokatza bikain

Lokatza txirrindulari elkarteko lehen mailako kadete taldea bikain ari da aurtengo denboraldian eta Alegian jokatutako Gipuzkoako taldekako erlojuaren kontrako proban 3. postua lortu zuen. Halaber, Igoitz Gabilondo txirrindulariak postu oso onak lortu ditu jokatutako lasterketetan. Argazkian taldea osatzen duten Ibai Gaztelu, Xabier Plazaola, Xabier Aranguren, Iñigo Arzelus, Xabier Gabilondo entrenatzailea eta Igoitz Gabilondo kirolariak ikus ditzakezue.



## Karteldegia

**FUTBOLA**

♦ **Bergara-Pasaia**
Preferente maila.
Domeka. 17:00. Ipintza.

**SASKIBALOIA**

♦ **Bergara-Goierri**
Junior mutilak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

**ESKUBALOIA**

♦ **Bergara-Arrate**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 16:30. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Egia**
Senior mutilak.
Zapatua. 18:00. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Arrasate**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

**NESKEN 3. FUTBITO TXAPELKETA**

♦ **LTB-Potzu Ta Zapaburuak**
Domeka. 16:00. Miguel Altuna.
♦ **The Hurricanes-Gu Geu**
Domeka. 16:00. Miguel Altuna.
♦ **Blue Star-Power Rantxeras**
Domeka. 17:00. Miguel Altuna.
♦ **Nahikari-Burdinezko Damak**
Domeka. 17:00. Miguel Altuna.

**IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA**

Astelehenean hasi eta uztailaren 11n bukatuko da Adin Mugarik Gabeko Ipintzako Futbol Txapelketa. 16 taldek eman dute izena: Manitou, La Juve/Lam, Matxakategi, Aloteak, Ezinleike, A Ze Flaxa Etxagi, Facuta, The Killers, Altos Pornos, Xurrupak, Osintxu, Ortzi, Coar, Mongatxurra, Shaktale eta Bildurbarek Opel/Lam.

# Santi Idigoras

## Aerobic monitorea

**Zapatuan arratsaldeko 5etan Udal Pilotalekuan aerobitona izango da Bolu eta Giartzu gimnasioek antolatuta. Monitore lanak Genma Otañok, Belen Romonek, Mari Carmen Palacinek eta Idoia Morenok egingo dute bi gimnasioak ordezkatuz. Proban parte hartzeko 500 PTA ordaindu behar dira Kutxako edozein bulegotan edo proba hasi aurretik pilotalekuan bertan. Santi Idigoras kirolari ezaguna ere Bergarako aerobitonean izango da eta berarekin berba egin dugu.**

**- Zer da aerobitona?**

- 2 ordu t'erdiz 4 edo 5 monitore taula gainean aritzen gara eta aerobic zaleek guk egiten duguna jarraitu beharko dute. Aurretik ikasitako mugimenduak izaten dira eta musika martxosoaren laguntzarekin kirola era dibertigarri batean egiten saiatzen gara. Korrika egiten izerdia botatzen da, baina aerobicarekin izerdia botatzeaz gain dibertitu egiten zara. Halere, aerobitona nahiko proba gogorra da ez baitago atsedenaldirik.

**- Biharko proban lehiaketarik badago?**

- Ez, beste aerobiton batzuetan jendea kanporatua izaten da. Biharko proba, berriz, herrikoia da eta ez da inor kanporatuko; helburua aerobica bultzatzea baita. Izan ere azken bi urteetan Deba Garaian aerobicak indar handiah hartu du eta proba bukatutakoan parte hartzaileen artean sariak banatuko ditugu.

**- Nola hasi zinen aerobica egiten?**

- Realeko beste jokalari batzurekin batera gimnasio bat zabaldu nuen duela 12 urte. Hasieran klaseak hartzen nituen, baina gero ematen hasi nintzen eta horretan jarraitzen dut.

**- Zer da gogorragoa futbola ala aerobica?**

- Aerobica gogorragoa da. Futbolean baino ordu gehiago sartzen ditut eta nekatuta bukatzen dut. Futbolean igandea izaten zen egunik politena partidua izaten genuelako, orain iganderako lehertuta bukatzen dut eta atsedenaldia hartzen dut.

**- Bergara ezagutzen duzu?**

- Nola ez! Aloña Mendirekin partidu asko jokatu ditut Agorrosinen eta Aretxabaletarekin, 18 urte nituenean, Gipuzkoako kopa irabazi genuen Agorrosinen, finalean Elgoibarri 4 eta 0 irabazi ondoren. Azkenengo urteetan beteranoen partiduak jokatu izan ditut eta Larrañaga eta Juaristi bergararrak oso lagunak ditut.



ARRASATE PRESS

"Aerobic-a modan dago Deba Garaian".

## "Futbola baino askoz ere gogorragoa da aerobic-a"



*Argazkia: Bixente Jauregi "Altzeta"*

# *Lokatzako lagun kuadrila, 1947*

Aste honetan Zubiaurre eta Martokua inguruko Lokatza kuadrila ospetsuko lagunak agertzen zaizkigu erretratu zaharrean. Argazkia 1947. urtean aterata dago, Frontoi aurrean, Bideberrin edo Espaloian, hori zehazterik ez dugu izan.

Lokatzakoak oso ezagunak ziren kalean sortzen zuten giroarengatik, oso juergazaleak ei ziren eta. Geroago, kirol elkarte bihurtu zen eta futbol eta txirrindulari taldeak sortu zituzten. Hortik gaur egun Bergarako txirrindulari taldearen izena.

Honako hauek dira erretratuan agertzen diren 20-21 urteko mutil koskorrak. Ezkerretik eskumara:

**Goian:** Angel Azkarate, Jose Luis Linzoain, Antonio Larrañaga, Pako Reglero, Manolo Solana eta Moises Manso.

**Behean:** Jose Mari Imaz, Luis Mari Lizarralde, Imanol Ezpeleta, Jose Mari Larrañaga, Roman Lizarralde, Juan Mari Errasti eta Antonio Egiluz.

Industria hornikuntzak
U UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



Ikasle eta guraso interesatuentzat,

# GESTIO Eskolaren aurkezpena,

Bergarako Kultur etxean, maiatzaren 27an arratsaldeko 7etan.

## *Enpresen gestiogintza eta zuzendaritzarako goi mailako karrera berria Elgoibarren*




Informazio gehiagorako:

**GESTIO ESKOLA**

IMH eraikuntza, San Roke auzoa, 1 20.870 Elgoibar
Telefonoa, 74 41 32





ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

**BENETAN HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDEETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabiloia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

ARKAUZ

**sukalde integrala**

- **Ordenagailuz egindako proiektuak**
- **Liderrak muntaian**
  **Betiko muntaiak**

FAGOR



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55